

Atomoa desintegratzea: Hizkuntz irakasleen trebakuntzan kontsumismoa eragozteko bide bat *

Tessa Woodward

Irakasle-trebatzaile askok irakas-iharduera berri interesgarri bat erabiltzen dute irakasleak "harrapatzeko", erakartzeko, beren lanaz gogoeta egitera bultzatzeko, eta gero teknika berriak erakusteko. Irakasle askok konferentziara joan, irakaskuntzako aldizkariak irakurri eta lagunekin hitz egiten du, "biharko egunean" bere ikasgelan proba ditzakeen ideia berriak izateko, hain zuzen. Bai irakasle hauen eta bai trebatzaileen motibazioa oso ulergarria da eta ezin da inola ere gaitzetsi. Badu, ordea, desabantaila bat ideia "berri"en etengabeko bilaketa eta erakusketa honek. "Berria" automatikoki "ona" bihurtzea da arriskua, eta "lehenago" ikusia edo entzuna den guztiaren aurrean nolabaiteko aspertu-jarrera hartzea. Hizkuntz irakaskuntz mailako "kontsumismo" hau umorez deskribatua izan da beste leku batean (de la Motte 1985). Ekintzaz ekintza saltoka ibiltzeko joera hutsal samar hau ekiditeko bide bat azpimarratu nahi nuke nik.

Atomoa desintegratzea

Hona hemen nola egiten den:

Hartu ikas/irakas-iharduera bat. Izan liteke diktaketa edo drill bat bezain gauza arrunt eta modaz kanpokoa, edo bestela rol-joko edo Forum aldizkari-ko Albiste eta Ideiak saileko edozein ideia. Ikasle batek egingo lukeen bezalaxe, espermentatu iharduera behin, zeu argi eta garbi jabetu arte beharrezko urrats guztiez eta materialaz, denboraz, beharrezko hizkeraz, etab. Benetan uste duzunean badakizula iharduerak nola funtzionatzen duen, xeheka ezazu ondorengo osagai hauen arabera:

- 1 *Antolamendua.* Nola daude antolatuta jendea eta altzariak?
- 2 *Materialak.* Zer behar du irakasleak? Zer ikasleak?
- 3 *Prozesua.* Zer egingo dute ikasleak? Zer irakasleak?
- 4 *Denbora.* Zenbat denbora behar da klase aurretik prestatzeko? Zenbat iraungo du iharduera honek klasean? Behar edo komeni al da denbora osagarriarik ondoren?
- 5 *Hizkuntza.* Nolako hizkera behar du(te): a) irakasleak iharduera azaldu

eta martxan jartzeko?, b) ikasleek ihardueran sartzeko (esate baterako, 1. ikasleak: “Hasi nahi duzu?” 2. ikasleak: “Konforme...”)?, c) ikasleek iharduera barruan?, d) ikasleek iharduera amaitzeko eta, agian amaitu ondoren, komentatzeko? Zer trebetasun-maila (entzumenean, mintzamenean, irakurmenean, idazmenean) behar da?

- 6 *Maila*. Dagoen bezala, zein mailatako ikasleentzat da ona?
- 7 *Aurrez eta ondoren*. Zer egin liteke iharduera aurreko momentuan/ikasgaian/asteen? Etxerako lanik? Osagai honek badu, beraz, zerikusirik ihardueraren sekuentziazioaz ikas/irakas-programaren barruan.
- 8 *Zuzenketa-politika*. Irakasle/ikasle edo ikasleen arteko zuzenketak onuragarri al dira iharduera honetan, ala zero aukera (zuzenketarik ez) hartu beharko ote litzateke?
- 9 *Gaia*. Ba al dago gai bereziren bat inplikaturatuta?
- 10 *Suposamendu teorikoak*. Zer-nolako suposamenduak daude iharduera honetan inplikaturatuta ikaskuntzari, jendeari, hizkuntzari edo irakaskuntzari buruz? Adibidez, drill arrunt batek zera suposatuko luke beste gauza batzuen artean: eredu baten arabera gauzak errepikatuz ikasten duela jendeak, ez zaiola axola hori egitea, eta gai izango dela ezagutza hori gero beste egoera batzuetan aplikatzeko!
- 11 *Arrazoiak*. Osagairik garrantzitsuenak, alegia, *zergatik* erabiltzen den iharduera jakin bat.

Agian egongo dira beste kategoria edo osagai batzuk zerrenda honetan sartu nahiko zenituzkeenak.

Iharduera baten gramatika

Behin iharduera bat goiko osagai horien argitan aztertu ondoren, baduzu “errezeta” bat iharduera berberori, etorkizunean, berrirori egin nahi duzun guztietan errepikatzeko. Honelako “errezetak” izaten dira –baina gehienetan ez hain zehaztuak– irakasleentzako baliabide-liburu, eskuliburu eta aldizkarietan aurkitzen direnak. *Forum*-en idazten dutenek batzuetan erabili izan dute honelako xehekapenik: “Materialak”, “Prozedura”, “Hizkuntz item-ak” eta “Gehigarriak”, eta hau ere, noski, nahikoa egokia da irakasleei gelan iharduera bera berregiten laguntzeko.

Baina errezeta bat erabil daiteke ez pastel berbera bi aldiz egiteko bakarrik, baita, armairuan daukazuaren arabera eta sormen pixka batez, antzerako pastel bat oso ahogustu ezberdinekoa egiteko ere. Iharduera bat goiko osagai guzti horien arabera xehekatuz gero, markoa edo egitura dauka irakasleak. Egitura horren barruko xehetasunak aldatuz, iharduera berriak sor daitezke. Ordezkatze-taulak esaldi berriak (ikaslearentzat) egitera eraman dezakeen bezala, gramatika eta sintaxi ingelesaren ezagutzak adierazpen berriak zertzeraren eraman dezakeen bezala, irakas-iharduera baten osagai-markoak ikasgelan iharduera berriak sortzeraren eraman dezake.

Lagin-iharduera baten analisia

Lehenik uztazue iharduera baten adibidea ematen analizatuta. Hona hemen Japonian lagun batengandik ikasi nuen jokoa.

- 1 *Antolamendua*. Bi lerro edo taldetan jarri behar dute ikasleek. Lehen

pertsona arbeletik hurbil egongo da, baina marra baten atzean. Beste taldekide guztiek lehenengoaren atzean kokatu behar dute. Arbelaren inguruan ez da altzaririk egongo.

2 Materialak. Klariona talde bakoitzarentzat eta arbela honela prestatuta:

	A Taldea	B Taldea
Hiria Herrialdea Neska-izena Mutil-izena Konpositorea Automobila Gauza bat (lau letra edo gehiagokoa)		

- 3 *Prozesua.* Irakasleak letra bat esango du ozenki; adibidez, “B!”. Talde bakoitzeko lehen ikasleak arbelera joan arin eta B letraz hasten den hiri baten izena idatziko du; adibidez, Bombay, Boston edo Bilbo... Ikasle hori marra atzera joango da berriro, klariona eman hurrengo taldekideari eta iladaren amaierara joango da. Klariona hartu duenak arin joan arbelera eta B letraz hasten den herrialde baten izena idatzi behar du; esate baterako, Brasil, Birmania edo Burkina Faso...; eta horrela jarraitzen da arbelean zerrendatutako kontzeptu guztiekin amaitu arte. Talde batek amaitzean, “kito!” hots egingo du irakasleak. Arbeleko hitzen ortografia aztertuko da. Zuzen idatzitako hitzik gehien dituen taldea izango da irabazlea.
- 4 *Denbora.* Bi minutu arbela prestatzen. (Aldi berean ikasleek taldeak osa ditzakete.) Jokoa txandaldi bakoitzak bosten bat minutu beharko ditu; egiaztapenak, bizpahiru minutu.
- 5 *Hizkuntza.* Oso ximplea izan daiteke. Irakasleak mimikaz eta erakutsiz eman ditzake azalpenak. Ikasleek “bizkor”, “zure txanda da!”, “nola idazten da...?” edo “lagundu!” bezalako gauzak behar izan ditzakete. Irakurketa eta idazketa beharko dira, batez ere.
- 6 *Maila.* Beheko mailatik erdikora bitartekoentzat.
- 7 *Aurrez eta ondoren.* Ekinaldi trinko baten ondoren, ikasleek atsedenaldira bat hartzeko baliagarri izan daiteke iharduera hau. Giroketarako jokoa ere izan daiteke, arbeleko ezkerreko zerrenda horretako edozein gai lantzen hasteko, alegia.
- 8 *Zuzenketa-politika.* Ez lehiaketa amaitu arte. Gero, taldeek elkarren artean edo irakasleak egin ditzake zuzenketa.
- 9 *Gaia.* Arbeleko ezkerrean dauden hitzak ikusi behar dira. Baita “ortografia” ere.
- 10 *Suposamenduak.* Ikasleek gogoko dituzte lehiaketak. Arbela ez da ira-

kaslearena bakarrik, ikasleena ere bai. Onuragarri da ezagutza edo kultura orokorra ere. Leku-izenen ortografia, etab. garrantzitsua da, eta landu beharreko zerbait.

- 11 *Arrazoiak*. Ondo pasatzea. Abiada bizkortzea. Ortografi arazoak eta ezagutza edo kultura orokorra diagnostikatzea. Gai jakin batzuk sartzea.

Azterturiko iharduera honetatik nola sortu iharduera berriak

Iharduera berriak sortzen

Osagaietako baten xehetasun bat bakarrik aldatuta, zeharo ariketa ezberdina sor daiteke. Orain arte deskribatu dugun bezala, arbeleko ariketak joan-etorri bizkorra sortzen du ikasgelan eta iskanbila dexentea, abiadura ere kontuan hartzen bait da. Alda ditzagun lehen osagaiaren xehetasun batzuk. Arbela erabili ordez, ikasle bakoitzak egin dezala jokoa bere koadernoan. Noski, askoz arinagoa gertatzen da. Beren mahaietan eserita, ikasleek ez daukate ezer esan beharrik. Arbeleko kategoriak kopia ditzakete koadernoan, eta honek iharduera luzatu egingo luke pixka bat.

Alda dezagun prozesuko xehetasun bat. Abiadura puntuatu ordez, eman puntuazio handia “ezohizkotasun”ari. Adibidez, ikasle batek baino gehiagok proposatzen badu “B” letraz hasitako hiri-izen berbera, ez dute puntuarik izango. Beste inori bururatu ez zaion hiri-izen bat jartzen duenak, horrek izango du puntua. Honek ere, abiadurari dagokionez, mantsotu egingo du jokoa, ikasleek baztertu egingo bait dituzte lehen bururatutako izenak eta hain ohizkoak ez diren beste batzuk bilatuko mentalki. Orain alda dezagun beste osagai bat: gaia bera. Arbeleko ezkerraldean, idatzi landu berriak diren hiztegi-arloak; adibidez, kirolak, zaletasunak, animaliak, altzariak, koloreak, landareak, jantziak...; eta egin jokoa kategoria hauekin. Bapatean jokoa aldatu egin dugu eta hiztegia berrikusteko ariketa bihurtu. Beste aldaketa bat eginez prozesuan, taldekideak izango dira hitzak letreiatuko dizkietenak arbelean dagoen “idazlariari”. Honela, ortografi ariketa oso aktiboa lortuko dugu, letreiatutako hitzak entzutea eta idaztea garrantzitsua izanik.

Ziur nago, ariketako osagaien beste xehetasun batzuk aldatuz, ariketa ezberdin asko proposatzeko gai izango zarela. Nik probatua dut teknika hau irakasle-trebakuntzarako taldeetan, eta partaideek aldagai-mordoa asmatu izan dute, aurrez azterturiko ariketa jakin batean oinarrituz betiere.

Atomoa desintegratu eta osagaiak aldatzearen abantailak

Abantailak

Irakasleek topa ditzaketen irakas-ideiei hurbilagoetik begiratzen laguntzeaz gain —aukera hobe izan dezaten gogoratzeko eta gai izan daitezen berriz erabiltzeko—, beren iharduera propioak sortzeko konfidantza ere ematen die teknika honek irakasleei. Uzkur agertu eta “sekula ezingo dut hori neure ikasgelan erabili!” esan ordez, teknika honek irakasleak animatu egiten ditu ariketa jakin batzuetan aldaketak egin eta beren ikasgeletara egoki ditzaten. Halaber, irakasgai bakoitzean irakasleak duen helburuaren arabera, “aukerabide” ezberdinen artean hauta dezakeela sentierazten ere laguntzen dio (Stevick 1986). Azkenik, ideia txiki batek urrutira eraman dezakeela ere erakusten du. Oso ezaguna den esaera bat parafraseatuz:

“Irakasleari ideia bat ematen badiozu, hurrengo irakasgairako laguntza emango diozu. Ideiak nola sortu erakusten badiozu, bizitza osoko irakasgaietarako laguntza emango diozu!”

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Oharra

*Ingelesez “Splitting the Atom—A Way of Avoiding Consumerism in Language-Teacher Training”, *English Teaching Forum* (XXVI: 4, 1988) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

Bibliografia

De la Motte, F. 1985. Conference postscript. *The report of the British Council-en*, 1985 Bolognako Konferentzia. Oxford: Modern English Publications.

Stevick, E. 1986. *Images and options in the language classroom*. Cambridge: Cambridge University Press.

Autorea

Tessa Woodward, Pilgrims English Language Courses delakoetan eta Kent-eko Hilderstone College-n ari da. Halaber, *The Teacher Trainer* buletina editatzen du, hizkuntza modernoetako irakasle-trebatzaileentzako batez ere.